

Euskaltzaletasunaren eredu

Jose Mari Pastor

Euskaldunon Egunkaria, 1993-03-25.

Korrika 8k Martin Ugalde omenduko du idazle eta kazetari honen euskaltzaletasuna eredu gisa agertaraziz, AEK-k haren literatur lan aipagarrienak bildu ditu liburu batean, "Martin Ugalde bezala, herriratze eta euskarara itzultze honetan aitzindari eta lagun" diren guztiei esker ona adierazteko.

Aurtengoa ez da izango Ugaldereen lehen Korrika, jadanik bi ediziotan hartu baitu parte. lehena Bermeon izan zen eta bigarrena Donostian, EGUNKARIAREN izenean ibilitako zatian. Euskararen alde bizitza guztian egin duen etengabeko lasterketa honetan beste kilometro bat egokitu zaio orain.

Hirurogeita hamaika urteko euskaltzaleak apal-apal hartu du AEKren ekimena eta prest agertu da bere Hondarribiko etxean lehengo eta oraingo denborak oroitzeko, batzuetan serio, gehienetan umoretsu.

Ugalde euskararen defenditzaile sutsua da, euskaldun errebelatua, AEK-k andoaindarraren lanak bildu dituen 'Erroetatik mintzo' liburuan Koldo Izagirrek azaldu duenez. Euskaltzaletasunaren harra txiki-txikitatik piztu zitzaion, etxean edoski zuen. Aita EAJko zinegotzia zen eta Gerra Zibilaren ondorioz exiliora joan behar izan zuen familiak. Harat-honat ibili eta gero, Ugaldetarrak "askatasunaren herria" izan zen Venezuelan geratu ziren azkenean. Hogeitabost urte zituen orduan.

Andoaingo gazte hark Venezuela deskubritu zuen eta beraien herria deskubriarazi zien venezuelarrei. Kazetariak Andes aldea, Brasil ondoko oihana, kostaldeko herriak eta bizilagunen hizkera eta ezaugarri bereziak isladatu zituen bertako egunkari eta aldizkarietako erreportaietan.

Eta gertatu behar zuena gertatu zen: "Errealitate hura salatzeke erreportaiak" ipuin bihurtu ziren, jende pobre eta tristearen bizimodua orrietara eramaten zuten ipuinak, "halako egoerek deitzen zidatelako beti atentzioa", eta 'El Nacional' egunkariak antolaturiko ipuin lehiaketa irabazi zuen.

Gero Los Andes-eko Unibertsitateak haren erreportai sorta bildu eta Kazetaritza Eskolako testu eredu bezala aukeratu zuen, "hara!, ni, andoaindar bat, Venezuelako kazetarientzat eredu!", gogoratu du oraindik ez sinetsiko ez balu bezala, "badakizu, suertea da, halaxe etortzen dira gauzak".

Kazetaritza eta literatura uztarturik

Hortxe geratu ziren betiko uztarturik kazetaritza eta literatura. Urte haietan landutakoa sortzen hasi zen pixkanaka-pixkanaka. 1950. urtean Caracaseko Eusko Etxe berriaren

inauguraziorako eratutako lehiaketa irabazi zuen 'Hiltzaileak' ipuinaz. Istorioak faxistek Andoainen sartu eta bertako gizon bat fusilatu zutenekoa kondatzen du. Hamaika urte geroago beste ipuin batzuekin batera argitaratuko zen, gerra bitarte eta osteko denbora latz haien ispilu. Ondoren beste hainbat lan idatzi zituen, baita literatur sariak bereganatu ere.

Euskaraz idazten hasia ez zen erraza izan. Erbesteratu bezain laster ekin zion euskarazko eskolak emateari eta hau lagungarri izan zitzaion. Bidea ez zen samurra izan, hala ere. "Gainera euskaldunon artean idaztea ez zegoen ondo ikusita 'alferren' lanak ziren gauza horiek" esan du irribarrez. Lopez de Mendizabalen hiztegitxoaren lantresna bakarra zuela hasi zen lanean, bere euskara lantzen, Euskal Herritik euskaraz jakin gabe txiki-txikitatik irten eta bere andrea izango zen Anamariri irakasten, "gure haurrak euskaldunak izateko". Ugaldek ez du ulertzen euskaldun askoren utzikeria, "euskaldunak direnak eta hitz egiten ez dutenak, irakurtzen ez dakitenak..."

Andoaindarrak ez zuen bere baitara mugatu euskararen aldeko lasterketa hau. Euskal Herrira 1969. urtean bueltatuta gogoz hartu zuen parte hamarkada haren amaieran euskara batuaren.